

Nafarroako lehendakariaren hautaketa prozesua

# PSOEek eta EAK HBri leporatu diote azken erabakiaren erantzukizuna

Bi alderdien egitasmoak Euskararen Legearen aldaketa aurrikusten du

**G**obernu programa amankomunaren aurkezpenean, HBrekin paktatzea «ezinezkoa» dela adierazi zuten PSOE eta EAK, eta alderdi horri leporatu zioten azken erabakiaren erantzukizuna. Beren egitasmoak Euskararen Legearen aldaketa eta EAArekin harremanak estutzeko batzorde iraunkor baten sorrera aurrikusten ditu, besteak beste.

A. UNANUE / IRUÑEA

Nafarroako Gobernuak lehendakari eusteko saioan, Gabriel Urralburu sozialistak aurkeztuko duen gobernu egitasmoa plazaratu zuten atzo PSN-PSOE eta Eusko Alkartasunak.

Gobernu egitasmoa azken asteotan izandako negoziaketan emaitza da eta dagoeneko ziurtatua dago aldeko 22 boto (19 PSOErenak eta 3 EArenak) jasoko dituela Foru Parlamentuan. IUren bi parlamentariak aurrez esana dute abstenitu egingo direla eta UPNk kontrako botoa emango dute.

Herri Batasunak edukiko du beraz giltza, abstenituz gero —edo bozketan parte ez hartuz gero— Urralburu izango bait da lehendakari eta PSOE-EAren egitasmoa datozen lau urteotan garatuko dena.



Aladino Colin eta Iñaki Cabaseek azaldu zuten akordioa.

JOXE

«Aurrerabiderako programak» PSOEren hauteskunde egitasmoa du oinarritzat eta erraz ikus daiteke non sartu duen eskua EAK. Onarturiko egitasmoan isladatu denez, euskarari lotutako gaiak eta EAArekin harremanak izan dira Garaikoetxearen alderdiaren eskaera nagusiak.

Aurrikusi den Euskararen Legearen aldaketa EAK nahi zuena baina apalagoa da, ez bait dira hiru hizkuntz eremuak desagertuko. EAKo bozeramale den Iñaki Cabaseek jakin erazi zuenez, «Gobernuak Foru Komunitatearen izaera elebiduna onartu beharko du eta, halaber, Nafarroa osora hedatuko da euskarazko irakaskuntza jasotzeko eskubidea,

eremuen gainetik irizpide pertsonala egongo delarik».

Atzo iragarritakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak eta Nafar Gobernuak batzorde amankomuna izango dute, izaera iraunkorrena, «bi elkartetako politika sektorialak koordinatzeko».

**HB-REKIN HITZARMENIK EZ** Aipatu da HBren laguntza nahitaezkoa dela PSOE eta EArentzat. Alderdi abertzaleak, ordea, etengabe errepikatu du Urralburu aurkako 26 boto izango dituela, aurretik negoziaketarik ez badago behintzat.

Gauzak horrela, sozialistak sa-

✓ Sozialistak sareetan atzemanda daude, HBren laguntza behar duten arren, «horiekin paktatzea ezinezkoa dela» diote eta.

reetan atzemanda daude, PSOErentzat «ezinezkoa» delako HBrekin negoziatzea, Colinek atzo adierazi zuenez. Honen hitzetan, «PSOEek HBrekin hitzegin deazake, baina HBkoek aurretik jakin behar dute hitzarmen politikoa ezinezkoa dela, ETArekiko lotura hausten ez duten bitartean».

Sozialistak hitzegiteko prest azaldu diren arren, HBkoek argi utzi dute «ez dugula elkar ezagutzeko hitzegiterik nahi, baizik eta akordio batzuetara iristeko».

Iñaki Cabaseen iritziz, «HBkoek gustora egon daitezke, beraiek proposatutako hoge ardatzak osotasunean jasota bait daude gure egitasmoan». EAKoak aipaturiko hoge ardatzak, HBk iragan asteazkenean negoziaketa hipotetiko baterako aurkeztu zituenak dira.

Cabasesek HBri leporatu zion azken erabakiaren erantzukizuna, «bi egitasmoak [UPNrena eta PSOE-EAren] errefusatu gero, badakielako bietako batek aurrera irtengo duela, eskuindarrena hain zuzen ere».

## Espainiako Erregearen etorrera

### Ataungo Udalak atzera bota ditu Erregearen bisitaren kontrako mozioak

I. ARANBURU / ATAUN

Atauneko Udalak ezetz esan zion HB eta KEMek Erregearen bisitaren inguruan aurkeztutako mozioei. EAren hiru botoak eta EAJren bakarra nahikoak izan ziren Erregearen bisita «ez gogozkoa» zela zioen mozioa atzera botatzeko. Bozketan, EE abstenitu egin zen eta HBk aldeko 4 boto eman arren alkatearen kalitatezko botoak erabaki zuen. «Bisita ez da ofiziala, Joxemiel Barandiarani egindako bisita partikularra da» izan zen ezezkoaren arrazoi nagusia, Lander Imaz Ataungo alkateak EGUNKARIARI adierazitakoaren arabera.

EAKo den Lander Imazek esan zuenez, Udalak ez du konbiterik jaso Erregearen harrerara joateko eta hortaz «ez da udaleko inor joango, nahiz Joxemielek Udaleko norbait joatea nahi izatea, kasu honetan, alkatea». Gobernu Komisoak hala erabaki zuelako, HB eta KEMen mozioak osoki eztabaidatu ziren, «nahiz eta KEMekoarekin puntu ba-

tzuetan ados egon» Imazek azaldu zuenez. Hala ere ez zuen komentatu nahi izan zergatik ez ziren puntuak aztertuta, osoki egin beharrean.

HB eta KEMek aurkeztutako mozioak antzekoak ziren. Bietan Erregearen bisita «non grata» deklaratzeko eta Ataungo Udaleko inork Erregeak parte hartuko zukeen inolako ekitaldian ez agertzeko eskatzen zen. Antimilitaristek Udalaren erabakia prentsaurreko baten bidez azaltzea planteiatu zuen ere lehen puntuaren barnean. Hirugarren eta azken puntuan zegoen desberdintasunik handiena. HBk aurkeztutakoan, bisitaldi osoan herriko etxetako balkoietan eta Udaletxean ikurrina jartzea proposatzen zen eta kontzientzi objektorenean, «bakearen sinboloa den» bandera txuria izatea.

EEK objektoreen puntu bat edo besterekin ados egon arren abstenitzea erabaki zuen. EAJren zinegotzi bakarrak alderdiaren txosten bat irakurri zuen.

### Euskaria: «Euskal Herriaren hondamena nahi du Espainiak»

I.A. / DONOSTIA

«Espainiako estatuak nahi duena ez da Euskal Herriaren ona, baizik eta bere boterearen hedapena eta inperialismoa», horrela dio Euskaria taldeak Espainiako Juan Carlos erregearen bisitaren aurrean zabalduko prentsa agiriari.

Euskariaren ustetan, Espainiak «bere burujabetza kendu eta bidezkoa ez den mendekeria ezartzen dio» Euskal Herriari, autodeterminazio eskubidea errekonozitzen ez dion neurrian.

Autodeterminazioaren alde egiten duen talde honen arabera, Espainiak egin duen gobernu guztiz kaltegarria izan da Euskal Herriarentzat, «gure herrian etnozidioa eta zapalkuntza eraginez».

«Espainiako Estatuak ez da ber-

matzen ari ez Euskal Herriaren garapena (NBEko Giza Eskubideen Hitzarmenak agintzen duen bezala), ez bakea, ez askatasuna ezta justizia» dio Euskariak agiriaren beste puntu batean.

Aurreko egoeraren ondorioz, espainiar legediak ez du lejitimitaterik Euskariaren ustetan. Demokraziaren oinarritzat jotzen duen askatasunik gabe bakerik ez dagoela ere aipatzen da. «Etikoki eta politikoki, horrela egonik, Euskal Herriak ez dio obediētziarik zor Espainiako Estatuari» dio komunikatuak.

Bukatzeke, «euskaldunentzako desobediētzi zibilerako atea zabalik dagoela» esaten du Euskariak eta dei egiten die espainiarrei «indarrean dagoen Estatu eredu honekin ez identifikatze- ra».

### Egitasmoaren edukiak

A.U. / IRUÑEA

Gabriel Urralburuk irakurriko duen gobernu egitasmoak ehun orrialde ditu eta bost ataletan dago zatituta. Aukeratu ditugun honako hauek intereseko zenbait puntu besterik ez dira.

#### ■ EUSKARA

Euskararen Legearen aldaketa: Nafar Gobernuak onartu beharko du Foru Komunitatearen izaera elebiduna, bai gizartean, baita Administrazioan ere. Euskarazko hezkuntza izateko eskubidea Nafarroa osora hedatuko da, eta irizpide pertsonala hizkuntz eremuen gainetik egongo da.

Kontseilu Aholkulariaren sorrera: hizkuntz politikako irizpideak bateratzeko.

Komunikabideak: euskarazko irrati legeztapena eta Euskal Telebistaren emanaldiak jasotze normalizatu.

Ikastolak eta euskaltegiak: arautegi berezia ikastolentzat eta egungo euskaltegi guztiak sustatzeko neurriak.

#### ■ HARREMAN INSTITUZIONALAK

EAArekin: Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak kideek osaturiko batzorde iraunkorren sorrera, bi autonomi elkarrekin politikak arlo guztietan koordinatu ahal izateko.

Nafarroa Beherea: Nafarroa Beherea eta Nafarroa Garaia erarte elkarlana eta harreman estuak bultzatzeko konpromisua.

#### ■ TRANSFERENTZIAK

Transferentzi prozesua ez da amaitutzat jotzen. Foruzaingok bere gain hartu behar ditu trafikoa eta garraioari lotutako eskumenak. Justizia, enplegua eta gartzeletako kompetentziak ere eskatuko dira.

#### ■ INGURUGIROA

Ingurugiro Agentziaren sorrera: organismo autonomoa izango da, Ingurugiro Departamentuaren baitan, baina gainerako departamentuen jarraipena egiteko ahalmenarekin. Nafarroako Gobernuak «ingurugiroaren defentsa radikalak egingo du eta interes ekonomikoak eta ekologikoak bat ez etorri gero, ekologikoek izango dute lehentasuna kasu guztietan».

### Euskal Herria bi estatuk menperatzen dituztela dio EAK

GASTEIZ

Eusko Alkartasuna agiri bat banatzen ari da Gasteizen Europa Cantateko partaideen artean eta turistaren artean. Agiri horretan esaten denez, «Euskadiren askatasun historikoa mugatuta dago, zatiturik duten bi Estaturen menpe bait dago. Egoera hau onartezina da eta euskalduna bere nortasuna kulturala, bizikera eta hizkuntza bera ere galtzeko zorian dago». Foiletoan EAK «euskaldunok euskal Estatu berbatu eta independente bat eratzeke dugu eskubidea» aldarrikatzen du.